

Ateak irekiz, eskua luzatuz



Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea

Leitza . Goizueta . Areso . Arano

Gure eskualdeko Oinarrizko Gizarte ZerbitzuaK 1990. urtean zabaldu zituen ateak. Hasiera hartan bi langilek herriko behar haiek jaso eta erantzuteko lan egiten zuten. Eguneroko lanaren ondorioz, zerbitzu, programa eta baliabide gehiago gehitzen joan dira pixkanaka pixkanaka. 27 urteko ibilbidearen poderioz, hurrengo lerroetan irakur litekeen moduan, egungo argazkia oso oparoa da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua zerbitzu publikoa, dohakoa eta komunitarioa da. Helburu nagusia Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko biztanleen bizi kalitatea hobetzea da, prebentzio bidez lan eginez eta pertsonen arazoak konpontzen laguntzeko neurriak orientatuz.

1 Harrera eta gizarte orientazioa

Gizarte zerbitzuen sarera sartzeko atea da, herritar guztiei zuzendutakoa. Bertan gizarte zerbitzuen barneko baliabideei buruzko informazioa jaso eta eskaerak egin daitezke.

Zerbitzuak

- Prestazio ezberdinen tramitazioa: familia ugariak, eszedentziak, jangela beka, eskola materialeko beka, gizarteratze errenta, larrialdietako diru laguntzak, laguntza bereziak...

2 Familia eta adin txikikoen programa

Adin txikikoen, nerabeen, gazteen eta familien beharrak asetzea helburu duen programa.

Zerbitzuak

- Familiekin, hurrekin eta gazteekin sor daitezkeen galdera, behar, zalantza eta zailtasunetan laguntza.
- Banantze prozesuetan informazioa eta orientazioa.

3 Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta programa

Adinagatik edo osasun arazoengatik menpekotasun egoeran daudenei sostengua emateko programa.

Zerbitzuak

- Menpekotasun balorazio eskaeren tramitazioa.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Etxean zainduta izateko diru laguntzak.
- Larrialdietako telefono zerbitzua.
- Etxetik kanpoko baliabideen inguruko informazioa.
- Ortopedia zerbitzua mailegua.

4 Gizarteratze programa

Gizarteratze eta laneratze prozesuetan zailtasunak dituztenei laguntzea helburu duen programa (denbora luzez langabezian daudenak, zailtasun ekonomiko larriak dituztenak...)

Zerbitzuak

- Babesturiko Gizarte lanaren kudeaketa.
- Lan komunitarioen kudeaketa.
- Etorrinei harrera eta erregulazio prozesua bideratzea.
- Elikagai bankua.

5 Prebentzio programa

Komunitatean jarrera era ekintza prebentibo nahiz osasuntsuak sustatzen dituen programa

Lan ildoak

- Aisialdia: Topaketak, haur txokoa eta tailerrak, Oialde Txoko eta Goxali gazte txokoak.
- Tailer eta sentsibilizazio kanpainak: sexualitatea, drogak, sare sozialak...

6 Emakumeen eta gizonen berdintasun programa

Parekidetasunaren bidean aurreratzea helburu duen programa.

Lan ildoak

- Emakumeen aurkako indarkeria
- Kontziliazioa eta arduren banaketa parekidea.
- Emakumeen ahalduntzea.
- Genero ikuspegiaren garapena

Badakizue non gauden!
Hartu hitzordua

☎ 948 510 840

✉ ssbleitza@lagagizartezerbitzua.org

📘 LAGA Gizarte Zerbitzua
🐦 @LAGA_OGzerbitzu